

ZINE GO AK

Otsailak
Febrero
February 28
7 Martxoak
Marzo
March
2022

— Bilboko Gaylesbitrans
19. Nazioarteko Zinema eta
Arte Eszenikoen Jaialdia

— 19º Festival Internacional
de Cine y Artes Escénicas
Gaylesbitrans de Bilbao

— 19th Bilbao International
Gaylesbitrans Film and
Performing Arts Festival

www.zinegoak.com

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA

ASOCIACIÓN
ZINEGOAK
ELKARTEA

BABESLEAK
PATROCINADORES

berdindu!
Enfrenta, organiza, hermanas
BERRI BERRIEN
BERRI BERRIEN

euskaltel

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES

Enfrenta, organiza, hermanas
EUSKO (BURGALANDA)
GOBIERNUA VASCO
EUSKAL GOBIERNUA
EUSKAL GOBIERNUA

Bizkaia
Bizkaia
Bizkaia

B
Bilbao

B
Bilbao

FILMIN

Berriro hasiko da Gaztelonjak zerbitzua

COVID-19ak eragindako osasun egoera aldatu egin denez, Udalak berriro ekin dio "Gaztelonjak" lonjen esku-hartze programaren kudeaketa integraleko zerbitzuari. Horrela, gazteak biltzen diren lonjen titularrak zerbitzuarekin harremanetan jar daitezke programa horri atxikitzeko, 638 32 20 65 telefono-zenbakiaren edo gaztelonjak@getxo.net posta elektronikoaren bidez, asteleheneratik ostiralera, 09:30etik 17:30era (uztailean eta abuztuan, 09:00etatik 15:00etara). "Gaztelonjak" en helburua lokal horiek alokatu ahal izateko gutxieneko baldintza batzuk bete ditzaten lortzea da; horiek erabilteak ez dezala auzokoek atsedean hartzeko duten eskubidearekin talka egin, eta ez daitezela arriskutsuak izan auzokoentzat eta horien erabiltaile diren gazteentzat. Gonzalo Ayo Gazteria Zerbitzuko zinegotziak nabarmendu duenez, "oso berri ona da gazte getxotarrentzat zerbitzu hau berreskuratzea ahal izatea, aisialdi alternatiboa garatzeko harremanetarako espazio propio eta autogestionatuak eskaintzen baititu".

EHUko Unibertsitate Orientaziorako Azoka

EHUazokak, EHUren urteroko Unibertsitate Orientazio Azokak, aurrez aurreko formatua berreskuratuko du, eta data hauetan egingo da: Gipuzkoako kanpusean, martxoaren 5ean, larunbatean; Arabakoan, hilak 12, larunbata, eta Bizkaikoan hilak 19, larunbata. Azokaren helburua da unibertsitate aurreko ikasleei informazioa eta orientazioa ematea eta unibertsitate-ikasketak aukeratzeko laguntzea. Informazio-saio kolektiboen eta fakultate eta eskoletako irakasleen arreta pertsonalizatuaren bidez, unibertsitate aurreko ikasleek graduiko ikasketen eskaintza hobeto ezagutu ahal izango dute, zalantzak argituz. Ikastaro honetan, azoka bakoitzean bi ekitaldi motatan parte hartu ahal izango da: arreta pertsonalizatua standetan eta taldeko informazio-saioretara joatea. Aldez aurretik izena eman beharko da eta ostiral honetara arte, hilak 4, egingo da Gipuzkoako azokan; martxoaren 7tik (astelehena) 11ra (ostirala), 09:00etatik aurrera Arabarako, eta martxoaren 14tik (astelehena) 18ra (ostirala), 09:00etatik aurrera, Bizkaiarako. Ikasle bakoitza gehienez lagun batekin joan ahal izango da, baina bakarka joatea gomendatzen da. Informazio gehiago: <https://labur.eus/xAQoV> eta <http://www.ehu.eus>

BEKAK SARIAK

* "Gabriel Aresti" Ipuin lehiaketa, Bilboko Udalak deituta 18 urtetik gorakoentzat. Sariaren zenbatekoa 3.500€-koa da eta 1.750€-ko akzesita modalitate bakoitzarentzat (euskara eta gaztelera). Lanak entregatzeko epea martxoaren 30era arte egongo da zabalik. Informazio gehiago: <https://labur.eus/6JONJ>

* Hiru beka eszena proiektuak garatzeko Bilbaoeszenaren «Artistak Egoitzan-2022» programarako eta 18 beka gazte artistentzat Cordobako Antonio Gala Fundazioan. Lehenak Bilboko Udalak deitu ditu 18 urtetik gorako artistentzat edo kolektiborentzat (4.000€/beka). Izena emateko epea apirilaren 4ean amaituko da (Informazioa: 944334995 eta <https://labur.eus/CfjrA>); bigarrenak 18 eta 30 urte bitartekoentzat dira. Fundazioan 9 hilabeteko egotaldia igarotzea da beka eta izena emateko epea martxoaren 31n itxiko da (Informazioa: 957487395 eta <https://labur.eus/wrSKo>).



Zinegoak ekitaldiekin dator martxoan eta apirilean

Datorren astelehenera arte, hilak 7, Zinegoak- Gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia ospatuko da Bilbon; urteroko ekitaldi honek euskal herri ugari hartzen ditu, besteak beste Getxo. Lehiaketa LGTB jaialdien erreferente bihurtu da nazioartean, eta bere jarduerak gai afektibosexualengatik edo identitateagatik ez baztertzearrekin lotuta daude, baita mundu osoan gertatzen ari diren giza eskubideen urraketen salaketarekin eta familia-eredu berrien ikusgarritasunarekin ere.

Aurten, gure udalerriko eskaintzan honako hauek sartzen dira:

- Martxoak 11, ostirala,

20:00etan, Romo Kultur Etxearen areto nagusian, *Nuestros cuerpos son sus campos de batallaren* proiektzioa. 16 urtetik gorakoei zuzendutako film dokumental frantziarra da, Argentinako historia kontatzen duena, borroka feministaz eta trans pertsonen paperaz hitz egiten duena.

- Martxoak 25, ostirala, 18:00etan, Getxo Elkartegian, Areetan, 5 eta 10 urte bitarteko haurrentzako ipuin-kontakteta. Sarrera dohainik. Aldez aurretik izena eman behar da Areetako Ludotekan (Eskoletako plazan), tel. 944660355 / 688812886 edo bilbao@getxo.eus.

getxo.eus. Ordutegia: 17:00-20:00, asteleheneratik larunbatera. Izena emateko azken eguna: martxoak 22. Plaza mugatuak.

- Apirilak 22, ostirala, Romo Gaztelekuan eta apirilak 30, larunbata, Algortako Gaztelekuan, nerabeentzako film laburren emanaldia, 18:30ean. Sarrerak doan, lekua bete arte.

Proiektatuko diren laburmetraiak dira: *Les filles ne marchent pas seules la nuit* (Canada, 2020), *Elsa* (Espainia, 2021), *No deberías* (Euskadi, 2021), *To the future, with love* (EEBB, 2021) eta *Una historia de amor imposible* (Txile, 2021).

Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, etikari eta giza eskubideei buruzko ikas-kuntza sustatzen du

ETIKASI programak Belfastera joateko aukera ematen die ikasle gazteei

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ETIKASI programaren edizio berri bat jarri du abian. Eusko Jaurlaritzarekin diseinatutako proiektu honen helburua etikari eta giza eskubideei buruz ikastea da, ikasle gazteen artean gogoeta sustatzeko. Taldean izena emateko epea amaitu bada ere, zabalik dago Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateko edo Lanbide Heziketako erdi edo goi mailako ikasketak egiten ari diren eta Belfastera (Ipar Irlanda) joango diren 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Gehienez 30 plaza eskainiko dira.

Izen-emateak martxoaren 8ra arte egin ahal izango dira. Horretarako, agiri hauek aurkeztu behar dira martxoaren 12ra arte: izena emateko fitxa, proiektuan parte hartzeko arrazoiak azaltzen dituen motibazio-gutuna, Giza Eskubideei buruzko hausnarketaren pertsonala (900 eta 1500 hitz artean) eta ingeleseko FCE-B2 maila justifikatzen duen ziurtagiria, ikasketak egiten ari direla frogatzen duen dokumen-



tuaz gain (adibidez, matrikula).

Lehenengo hautaketa dokumentazioa entregatu eta baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean egingo da. Martxoaren 30ean eta 31n elkarrizketa pertsonala egin ondoren, behin betiko hautaketa egingo da. Ebazpena apirila-

ren 2an jakinaraziko da, preskakuntza apirilaren azken egunetan izango da eta Belfasterako bidaiak uztailaren hasieran.

Informazio gehiago eta izena emateko: <https://labur.eus/dOlpw>, Telefonoak: 688 737 097/945 220 601 (Ainhoa) edo bakea@egk.eus.

GureGune
gaztelekua

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Martxoak

Hilak 4, 11, 18 eta 25, ostiralak: TAILERRA: IBILBIDE FEMINISTA
Hilak 5, larunbata: IRTEERA: ESCAPE ROOM
Hilak 8, asteartea: SUKALDARITZA: HOT DOG
Hilak 10, osteguna: TXAPELKETA: UNO
Hilak 12 eta 19, larunbata: TAILERRA: CONSTRUCT
Hilak 16 eta 30, asteazkenak: TAILERRA: ARABIAKULTURA
Hilak 22, asteartea: TAILERRA: POZA
Hilak 26, larunbata: IRTEERA: ITSAS MUSEOA

GauEgun
gaztelekua

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Martxoak

Hilak 4, 11, 18 eta 25, ostiralak: PROIEKTUA: IBILBIDE FEMINISTA (BELDUR BARIK)
Hilak 9, asteazkena: TXAPELKETA: MARIOKART
Hilak 17, osteguna: JOLASA: EZKUTAKETA
Hilak 19, larunbata: MASTER CHEF: GALLETAK
Hilak 26, larunbata: SALIDA: DOCK39
Hilak 30, asteazkena: JOLASA: ZELAI ERREA